



■ SANTO TOMAS EGUNA

Txistor jatea gaur, auzo eta elkarteetan

Lizeagan, Etxeberri eta Portun antolatu dituzte txistor jateak. Goiz Eguzkiko bazkideek ere, egun berezia dute gaurkoa. San Joan Konpartsako kideak Donostian izango dira gaur, postu eta guzti.

GABONEN iragarle, negua gerutu dela gogorarazten du Santo Tomas egunak. Hernanin errotua dagoen jaia da, geroz eta gehiago baitira txistor jateak antolatzen dituztenak. Ostiralean ikastetxeetan antolatu zuten; eta atzo, jendetza inguratu zen Plaza Berrira, San Joan Konpartsak urtero jartzen duen postura. Gaur, Santo Tomas egunez, auzo eta elkarteetan izango da festa.

Eguerdi partean, guztiak

Lizeagako auzotarrek 12:00-etatik aurrera dute hitzordua Madalena, 8 helbidean. Portun ere ordu berean izango da txistor jatea, Ibarrolaburu Plazan. Etxeberriko auzotarrak elkarteetako lokalean elkartuko dira. Hauek lehenxeago ha-

siko dira, 11:30ak inguruan, Etxeberri auzoko 3 zenbakian.

Saribanaketa ere bai, Goiz Eguzkin

Festa eguna dute gaur, Goiz Eguzkin. 11:00ak aldera, udazkeneko jokoetako sari banaketa egingo dute. Eta ondoren, hiru saski zozketatuko dituzte bazkideen artean. Eguna txistor jatearekin borobilduko dute.

Donostian ere, zita

Santo Tomas egunez Donostiara gerturatzen direnek, San Joan Konpartsari laguntzeko aukera izango dute. Gipuzkoa Plazan jarri dute postua, Legazpi kale ondoan. Taloak salduko dituzte txistor, gazta, hirugiharra edo glutenik gabeko txokolatearekin. ■



Gipuzkoa Plazan jarriko du postua gaur San Joan Konpartsak.

■ ERREMONTA BINAKAKO TXAPELKETA

Ezkurra eta Ionek txapel berria, bitrinarako

Nagusi izan ziren partidua osoan, eta 35-40 gailendu ziren Ezkurra II eta San Miguelen kontra.

FINAL haundia zen atzokoa ezkuratarren etxean. Osabailobak aurrez aurre izan ziren, Binakako txapelketa nagusian. Esperientzia izan zen garaile atzokoan, eta Koteto Ezkurak jantzi zuen txapel-dunaren ikurra, txapela, Ionekin batera. Binaka, laugarren txapela du Doneztebekoak; eta hirugarrena Ionek. 35-40 irabazi zuten, Ezkurra II eta San Miguelen kontra.

Ezkurra eta Ion ziren finala irabazteko faboritoak, eta zentratuta atera ziren. Ber-

dinduak joan ziren aurreneko tantuak, 3-3. Handik aurrera, aurretik joan ziren Ezkurra eta Ion: 10-13 eta 10-14. Jaun eta jabe izan ziren, 13-28 aurreratzerira iritsi ziren. Ezkurra II eta San Miguel partidutik kanpo zeuden, eta Kotetok jarritako erritmora jokatu ziren handik aurrerako tantuak. Azkeneko tantuetan ordea, etorri zen erreakzioa. San Miguelek sakean asmatu zuen, eta pelotakadekin gerturatzea lortu zuten. 23-29tik aurrera, nahiko berdindua joan zen finala. ■



Ezkurra eta Ionek jantzi zuten txapela. Argazkia: Maialen Andres.

■ KRONIKA

Zozketatu dira lau saskiak

Berriak elkartearekin batera, Gabonetako saskiak zozketatzen ditu Hernaniko Kronikak Gabonetan. Ostiralean izan zen zozketa, eta lau zenbaki sari-tuak eta saldutako lekuak hauek dira: 0540 Ikusi Makusin, 0009 Keran, eta 0170 eta 0183 Dorrnsoron. Irabazleek ostirala arte dute jakinarazteko. Baten bat azaltzen ez bada, berri zozketatuko dira; beraz, errifak ez botatzea gomendatzen da. ■

■ ZINEA

Bi sesio, gaur

Biterin bi zine sesio eskainiko dituzte gaur: *Las aventuras del pequeño fantasma* 16:30etan, eta *Fuego* 19:30etan. ■

■ OSIÑAGA AUZOA

Musa, gaur

Mus Txapelketa jokatu da gaur Olaizola sagardotegian. Inskripzioak 20 euro balio du bikoteko, eta izena bertan eman behar da, 16:00ak baino lehen. ■

■ ESKUBALOA

Ate irekiak, gaur

Eskubaloi taldeak aste osorako plana antolatu du animatzen diren guztientzat. Gaur ate irekiak izango dira, 09:30etatik 11:30etara. ■

■ GABONAK

Txistu kontzertua Milagrosan, gaur

Eguberritako txistu kontzertua emango dute gaur, 13:00etan. Zortzi abesti eskainiko dituzte txistulariek; eta bi biolin jole ere izango dira. ■

Umeentzako ludoteka, 3 egunez

Hernaniko Udalak umeentzako ludoteka antolatu du Gabonetan. Ohe elastikoak, slackline, mahai jokoak, eskulanak, jolas kooperatiboak, etab. antolatu dituzte, Kiroldegiko 1go pistan. 22, 23 eta 26an izango dira, 10:00etatik 13:00etara. ■

ARALAR TABERNA

GIRO EDERRA

ETOR ZAITEZ

ZAPA KALEA 8 - ☎ 943 33 15 06

Aitor Ruiz de Eguino

OPARI ARTISTIKOAK

www.aitor-ruiz-de-eguiño.com

info@aitor-ruiz-de-eguiño.com

605 76 02 45

Brintza

Lan-Aholkularitza - Fiskala - Aseguruak Inbertsioak - Zerbitzu Juridikoak

www.brintza.com

Urbietan 15 - Hernani

Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892

GABON HALETAN OPARITU EDERTASUNA ETA ONGIZATEA

ETORRI GURE TRATAMENDUAK ESAGUTZERA

nibiru

UNIBERDAGINTZA ZENTROA

AUTOMARILLA ETI ETASTURAKO
DASIMIKURAK
PILAKURAK
MASAJEAK

TRATAMENDUAK
MIKROPIGMENTATIA
SPA TRATAMENDUA
POTOCERIFLADIA

Izakiak: 1
20120 Hernani
Gipuzkoa

T: 943 24 35 60
M: 689 561 536
E: info@nibiredagintza.com

www.nibiredagintza.com

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Aguado ASTIGARRAGA Nagusia, 21 943 550327 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURADIA GAUR Goizean lainotuta egongo da eta euria ere egin dezake. Arratsaldean atetzeraz egingo du eta eguzkia aterako da. Temperatura, antzeko: Min.6° / Max.12°

BIHAR Eguraldi polita espero da, eguzkitsua eta hegoaldeko haizearekin. Temperatura, atsegina: Min.5° / Max.17° (euskalmet)

■ KIROL SARIAK



Eva Esnaola, Ioritz Arrieta eta Iñaki Esnal, udal ordezkariak eta errugbi eta pelota federazioetako presidenteekin.

Eva Esnaola, Ioritz Arrieta eta Iñaki Esnal, hiru sarituak

Esker hitzak izan zituzten hiruek, jasotako aitortzagatik.

HIRU kirolari hernaniarrek ondo merezitako saria jaso zuten ostiralean. Kirolaren Saria emanen dute Kirol elkarteek eta herritarrek, eta Eva Esnaola, Ioritz Arrieta eta Iñaki Esnal izan dira aurtengo sarituak. Esker hitzak izan zituzten guztiek, ostiraleko ekitaldian.

Eva Esnaolak emakumez-

koen kategorian jaso zuen saria, urte borobila izan baitu; besteak beste, hirugarren egin zuen Spartathlonean, 246 kilometroko proban.

Gizonezkoetan Ioritz Arrieta pelotariak jaso zuen saria, nahiz eta ezin izan zuen ekitaldira gerturatu. Txapel asko ditu irabaziak, eta berezien artean

Mundukoa, sub 22 kategorian.

Hernani Saria Iñaki Esnalek jaso zuen, pelota munduan egindako ibilbideagatik: jokalaria, entrenatzailea, hautatzailea... izan da.

Sariak banatu aurretik, eskal selekzioaren inguruko mahai-ingurua izan zen Patxi Jaurerri eta Iñaki Laskurainekin. ■

■ PSE-EE PRENTSA OHARRA

«Aurrekontuen kontra bozkatu dugu partidistak direlako eta gardentasuna falta dutelako»

PSE-EE alderdiak 2015eko udal aurrekontuen kontra bozkatu zuen osteguneko Plenoan. Arrazoiak eman ditu, prentsa ohar bidez.

PSE-EE alderdia kritikoa agertu da Atez Atekoak aurrekontuetan duen partidarekin: «aurten 1.583.000 euroko partida aurreikusitako dute. Horri gehitu behar zaio San Markori ordaindu behar zaizkion 249.000 euroak. Guztira, 1.832.000 euro. Hernanik galdu egin du sistema aldaketarekin. Atez atekoa jarri aurretik, hondakinak jasotzeko 467.657 euro behar ziren. Aurten gainera, beste partida bat aurreikusi dute autokonposta egiteko, 30.000 eurokoa».

Aurrekontuek gardentasuna falta dutela ere azaldu du PSE-EE alderdiak prentsa oharrean: «osoko emendakina aurkeztu dugu. Proiektuan esaterako, igerileku irekietarako partida bat aurreikusten da 45.500 eurokoa. Aldaketa bat egin dute, eta orain 22.200 euro izango dira igerileku irekietarako, 22.000 euro atletismo pis-

tarako eta 1.300 bizikleta berri bat erosteko».

'Beste inbertsioak. Herriko kaleak' partidarako 170.000 euro aurreikusita zeudela azaldu dute, eta hor ere aldaketak egin direla: «233.000 euro irisgarritasunerako izango dira; umeentzako parke bat estaliko da, eta komun publiko bat jarriko da. 'Infrastrukturak eta urbanizazioak. Herriko kaleak' ataleko aurrekontua ere, 45.000 eurotik 128.000 eurora pasa da. Orain enteratu gara, Plaza Berri berrurbanizatzeko dela. Eta bere kausarako dirulaguntza zuzenak ere aurreikusten dira aurten: 15.000 euro Udalbiltzararako, 3.000 euro Harrera elkartarako, 9.500 euro Gure Esku Dagorako...».

«Inbertsioak, zalantzan»

Azaldu dute, inbertsioen partida haunditu egin dela, 3.000.000

euroak gaintuaz: «azken bi urteetan ordea, ez da aurreikusitakoaren %50a ere egin. Zalantza dugu oraingo honetan egingo ote diren edo ez. Inbertsioetan, 1.200.000 euro daude kiroldegiko igerilekura. Badakigu txiki geratu dela, baina beste alternatiba batzuk egon daitezkeela uste dugu».

«Garapen agentzia, arrazoi bat» Garapen Agentziarekin duten kezka ere, osoko emendakinen arrazoietako bat dela dio PSE-EEK: «hasieratik esan diogu Bilduri izaera publikoa beharko lukeela, gardentasuna eta funtzionamendua ziurtatzeko. Bilduk ezetz erabaki du, beste alderdiekin adostu gabe».

Zorra kitatu beharrean, amortizatutako kantitatea kredituan eskatu duela ere azaldu dute: «zorra gutxitzeko aukera ederra zen, kreditua eskatu beharrean». ■

■ GALDUTAKOAK

Bi karpeta galdu ziren ostiralean, AEKko fotokopiekin

Bi karpeta galdu ziren ostegunean, bat transparente xamarra eta bestea horia; bat klip formatuko, eta bestea gomaduna. AEKko fotokopiekin zeuden barruan; eta baita eskuz idatzitako orri bat ere. Aurkituz gero, deitu: 661 248 367 telefonora. ■

Belarritako luzea galdu zen asteazkenean

Zilarrezko belarritako luzea galdu zen asteazkenean, Plaza Berri eta Urbietako kale artean. Belarritakoak txispita gorri bat du, urte pixka batekin. Aurkituz gero, deitu: 669 133 616 telefonora. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

HAMARGARREN URTEBETETZEA
 † **Jesus Artola Urrestarazu**
 JAUNA
 2004ko abenduaren 19an hil zen, 82 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.
-Goian bego-
Ez zaizkigu inoiz ahaztuko zure hitzak, zure bizitza. Bizirik zaude oraindik, zeu zara gure bihotza.
ETXEKOAK
 Hernanin, 2014ko abenduaren 21ean
 Helbidea: Sagastiya baserria

† **ESKERTZA**
Juanita Sanz Usarraga
 Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -
 Juanitaren familiak eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaren guztiei eta baita elizkizunetara etorri zirenen guztiei ere.
ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK
 Hernanin 2014ko abenduaren 21ean

IÑAKI-XABIER ZABALA MARTINEZ

Gaur bihurtu da 100 urteko pertsona. Gaur bihurtu da 100 urteko pertsona. Gaur bihurtu da 100 urteko pertsona.

2014ko abenduaren 21a

Familia eta adiskideak.

IRAGARKI MERKEAK

Alokatzeko 3 gelako etxebizitza beharra daukagu. Deitu: 618 120 340

Sukaldaria behar dugu jatetxe batean, esperientziarekin. Urtarrilean hasteko. Deitu: 600 668 957

Trufa bikainak egiten dira enkarguz (Hernanirako). 24 trufa 12 €. Deitu: 654 55 10 88
 15 m2ko garaje itxia salgai Mañe y Flaquer 4 zenbakian. Kotxea eta motorra sartzeko nahiko leku dago. 22.000 € negoziagarriak. Deitu: 638 784 065 (Carol)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)